BESTELAKO XEDAPENAK

HERRI ADMINISTRAZIO ETA JUSTIZIA SAILA

3111

15/2013 EBAZPENA, ekainaren 11koa, Jaurlaritzaren Idazkaritzako eta Legebiltzarrarekiko Harremanetarako zuzendariarena, «Eusko Jaurlaritzaren publizitate-kanpaina eta zabalkunde-jarduera guztietan erabiltzeko berariazko nortasun-ikurra onartzeko» Jaurlaritzaren Kontseiluak hartutako Erabakia argitaratzeko xedatzen duena.

Jaurlaritzaren Kontseiluak, 2013ko ekainaren 11ko bileran, «Eusko Jaurlaritzaren publizitate-kanpaina eta zabalkunde-jarduera guztietan erabiltzeko berariazko nortasun-ikurra onartzeko» erabakia hartu zuen. Behar bezalako publikotasuna izan dezan, hauxe

EBAZTEN DUT:

Artikulu bakarra.– Euskal Herriko Agintaritzen Aldizkarian argitaratzea «Eusko Jaurlaritzaren publizitate-kanpaina eta zabalkunde-jarduera guztietan erabiltzeko berariazko nortasun-ikurra onartzeko» Erabakiaren testua (ebazpen honen eranskina).

Vitoria-Gasteiz, 2013ko ekainaren 11.

Jaurlaritzaren Idazkaritzako eta Legebiltzarrarekiko Harremanetarako zuzendaria,
SANTIAGO LARRAZABAL BASAÑEZ.

ERANSKINA, JAURLARITZAREN IDAZKARITZAKO ETA LEGEBILTZARRAREKIKO HARREMANETARAKO ZUZENDARIAREN EKAINAREN 11KO 15/2013 EBAZPENARENA

EUSKO JAURLARITZAREN PUBLIZITATE-KANPAINA ETA ZABALKUNDE-JARDUERA GUZTIETAN ERABILTZEKO BERARIAZKO NORTASUN-IKUR BEREZIA ONARTZEKO ERABAKIA

Legegintza honetako gobernu-jarduerak pertsonak ditu ardatz. Pertsonak izango dira abiapuntu eta helmuga, beti. Pertsonak dira sorburu eta helburu, eremu eta dimentsio guztietan.

Jaurlaritzak badaki, jakin, beharrezkoa dela bere jardueren baterako irudia eskaintzea herritarrei; eta horregatik, beharrezkotzat jotzen du oraingo erakunde-nortasuna sendotzea. Xede horretarako, sektoreetako publizitate-kanpainen eraginkortasuna indartu nahi du mezu bateratzaile edo «ikurritz» baten bitartez, Eusko Jaurlaritzaren zabalkunde-jarduera eta publizitate-kanpaina guztiak helburu berarekin lotzeko.

Abuztuaren 31ko 318/1999 Dekretuaren 3.1 artikuluan ezarritakoaren arabera –Eusko Jaurlaritzaren erakunde-nortasunaren eskuliburua arautzen du dekretu horrek–, Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorreko sailek eta bere administrazio-unitateek, zein diren ezagutarazteko, erakunde-nortasunaren eskuliburuan bildutako elementuak, eta ez besterik, erabiliko dituzte jendaurreko komunikazio-agerraldi guztietan, eskuliburuan jasotako zehaztapen teknikoekin eta erabilera-irizpideekin bat etorriz.

Bestalde, artikulu bereko bigarren paragrafoak ezartzen du bestelako ikur bereziak ere erabili ahal izango direla zenbait zerbitzu edo jendaurreko jardueratan, baina, horretarako, ezinbestekoa izango dela Jaurlaritzaren Kontseiluaren erabakia eta Lehendakaritzaren idazkari nagusiak aldeko txostena ematea aurretiaz. Jaurlaritzaren Kontseiluak hartutako erabakia Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratuko da.

Ildo horretan, Jaurlaritzaren Kontseiluak, 2002ko ekainaren 11n, «Un país en marcha / Aurrera doan herria» berariazko nortasun-ikurra onartu zuen. Hamarkada bat igaro denez, komenigarria da mezua eguneratzea; beraz, ikur hura indarrik gabe utzita, beste ikurritz bat onartzen da: «COMPROMISO CON LAS PERSONAS-PERTSONA HELBURU», hain zuzen.

Lehendakaritzako idazkari nagusiak aldeko txostena eman du, eta zenbait zerbitzu edo jendaurreko jardueratan berariazko bestelako ikurrak ere erabiltzeko eskatutako baldintzak badirela justifikatzen da txosten horretan.

Horrenbestez, lehendakariak proposatuta, eta aztertu beharrekoak aztertu ondoren, Jaurlaritzaren Kontseiluak hauxe

ERABAKITZEN DU:

Lehenengoa.– Berariazko nortasun-ikur bat onartzea Eusko Jaurlaritzaren publizitate-kanpaina eta zabalkunde-jarduera guztietan erabiltzeko. Ikurra mezu bateratzaile edo «ikurritz» bat da –«COMPROMISO CON LAS PERSONAS-PERTSONA HELBURU»– eta Eusko Jaurlaritzaren erakunde-markaren goialdean txertatuko da.

Ondorioz, eraginik gabe uztea «Un país en marcha / Aurrera doan herria» berariazko nortasun-ikurra; Jaurlaritzaren Kontseiluak 2002ko ekainaren 11n egindako bilkuran hartutako erabakiaren bitartez onartu zen ikur hori.

Bigarrena.– Ikurraren zehaztapenak publizitate euskarrian nola ezarri behar diren zehazteko, Lehendakaritzaren idazkari nagusiak ebazpen bat emango du.

Hirugarrena.– Eusko Jaurlaritzako sailetako zerbitzu zuzendariek, Lehendakaritzaren Idazkaritza Nagusiarekin koordinatuta, berariazko nortasun-ikurra behar bezala erabiltzen dela zainduko dute.

Laugarrena.– Jaurlaritzaren Idazkaritzako eta Legebiltzarrarekiko Harremanetarako Zuzendaritzak aginduko du erabaki hau euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratzea.